

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

NAVARIDASKO UDALA

Behin betiko onespena ematea ezkontza zibilak egiteko udal aretoen erabilera pribatiboaren tasa arautzen duen zerga ordenantzari

Behin Udalbatzak hasierako onespena emanik, 2020ko irailaren 25ean egindako bilkuran, ezkontza zibilak egiteko udal aretoen erabilera pribatiboaren tasa arautzen duen zerga ordenantzari, eta behin jendaurrean jarririk, ALHAOren 123. zenbakian (2020ko urriaren 30ekoa) iragarkia argitaratuz, epe horretan erreklamaziorik egin ez denez, behin betiko onetsita geratzen da, eta hala jakinarazten toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan jasotako ondorioetarako, ordenantza horren testua osorik argitaratuta.

Erabaki eta ordenantza horien aurka interesdunek administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan, iragarki hau argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

EZKONTZA ZIBILAK EGITEKO UDAL ARETOEN ERABILERA PRIBATIBOAREN TASA ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZA

1. artikulua. Xedea

Ordenantza honen xedea da arautzea nola erabili udal aretoak ezkontza zibilak egiteko Navaridasko udalerrian.

2. artikulua. Zerga egitatea

Zerga egitatea da Navaridasko Udalaren aretoen erabilera pribatiboa ezkontza zibilak egiteko, bai eta horren ondoriozko udal zerbitzuak ere.

3. artikulua. Ezkontza egiteko lekua

Udalak eskatzaileen eskura jarriko du ekitaldia egiteko leku egokia. Udalaren lokala apaindu edo egokitu nahi izanez gero, aldezturik jakinarazi beharko zaio udalari, behar besteko aurrerapenaz, dagokiona ebatz dezan.

Oro har, udaletxeko osoko bilkuren aretoa egokituko da ezkontza zibilak egiteko, betiere erabiltzeko aukera badago.

4. artikulua. Prozedura

Ezkontza zibila egiteko eskaerak Navaridasko Udaleko sarrera erregistroan aurkeztu beharko dira, hauek jasota:

- Interesdunen eta, halakorik badago, haien ordezkarien izen-abizenak eta helbidea.
- Dagokion espedientearen instrukzioa egin eta izapidetu behar da eskumena duen erregistro zibilean.
- Tasaren aurretiko gordailua justifikatzeko ordainketa gutuna.
- Ezkontza zibila zein egun, ordu eta lekutan egingo den adieraztea.
- Eskaera non eta noiz egin den.

— Eskatzaileen sinadurak.

Eskaerak ez baditu betetzen adierazitako betekizunak, eskatzaileei eskatuko zaie ahalik eta eperik laburrenean zuzen ditzatela.

5. artikulua. Ezkontza zibilak egiteko ordutegiak eta egunak

Ezkontza zibila egiteko eguna eta ordua alkateak edo hark eskuordetutako zinegotziak finkatuko ditu, aurkeztutako eskaerari atxikiz eta kasuan kasuko espedientearen instrukzioa egin ondoren.

Udalak beretzat gordetzen du, une oro, lagapena suntsiarazteko aukera, aretoak ezinbestean erabili behar izanez gero, interesdunari dagokion tasaren zenbatekoa itzuliz. Egoera hori behar besteko aurrerapenaz jakinaraziko zaio interesdunari, eta behar bezala arrazoituko da.

Ezkontza zibilak lanegunetan eta jaiegunetan egingo dira, eta horretarako ezarritako espazioak edo lokalak egokituko dira, horien eskuragarritasunaren arabera.

6. artikulua. Zerga kuota

Udal aretoen erabilera pribatiboaren zerga kuota izango da tarifa hauek aplikatzea:

- 50 euro, ezkontide bat edo biak Navaridasen erroldatuta badaude.
- 150 euro, ezkontideetako bat ere ez badago erroldatuta Navaridasen.

7. artikulua. Sortzapena

Tasa eta ordaindu beharra sortzen da ezkontza zibila egiteko edozein udal aretoen erabilera pribatiboa eskatzen den unean.

Tasa ezkontza egin aurretik ordaindu beharko da, eta eskaerarekin batera tasa ordaindu dela egiaztatzen duen ordainketa gutuna aurkeztu beharko da.

Ez da emango eskatutako zerbitzua baldin eta ordainketa egin ez bada.

8. artikulua. Eskubideak eta betebeharrak

Gaitutako udal aretoen erabiltzaileek bermatuko dute ondo zaindu eta garbi uzten dituztela; beraz, ez dute egingo udal aretoak hondatu edo kaltetzea ekar dezakeen inolako ekintzarik.

Ekitaldia egitearen ondorioz, udal lokaletan edo ondasunetan sortarazitako kalteak baime-naren titularren erantzukizuna izango dira, eta udalak haiek konpontzea eska dezake.

Inola ere ezingo da udal aretoetan sartu adierazitako gehieneko edukiera baino pertsona gehiago.

Erabiltzaileek atondu nahi badute modu berezian gaitu zaien udal aretoa, nahikoa aurretiaz jakinarazi beharko diote udalari dena delakoa ebatz dezan. Lekuaren orekari eta ezaugarriei eutsiko zaie eta haien kontura izango dira sortzen diren gastuak.

Azken xedapena

Ordenantza honek ALHAOn argitaratu eta hamabost egunera izango ditu ondorioak.

Navaridas, 2020ko abenduaren 3a

Alkatea

MIGUEL ÁNGEL FERNÁNDEZ GONZÁLEZ